

EUSKERA MINTZATUAREN INGURUAN

Euskera bizia, eta euskera mintzatua ahoz betez aipatzen dituzte han, hor eta hemen. Baina euskera bizia edo mintzatua ez dute batzen ez aztertzen gure artan behar dan bezela. Ez dute batzen ez aztertzen behar dan bezela, ez euskararen etorkizunak behar duen neurrian, ez beste herri batzuek heuren hizkuntzak eta mintzairak aztertzen dituzten neurrian ere. Baina gure artean asko ta asko dago oraindino munduko azkarrenak eta onenak geralakoan, palearik handiena edo tortilarik handiena egin dutelako Euskalherri honetako bazterren baten. Dana dala horrelako gauzeekin ez gera sartuko aurrerakuntza bidean «arlotekuntza» bidean baizik.

W. DOUGLAS jaunak, «doctor honoris causa» egin zutenean Euskalherriko Unibertsitatean, esan zuen beraiek gure hermengo dciak, oiua edo eskariak aldarrikatu ditzazketela Renoko unibertsitatean eta Estatu Batuetan, baina euskaldunok hermen egin behar dugula oinarritzko lana. Euskera mintzatuaren arloan ere badugu non lan egin.

Bestalde euskaldunok desberdinak gera. Eta zer egiten dugu elkar hobeto ezagutzeko eta desberdintasun horiekin ere elkar aberastutzeko? Xibereraren zer berri ezagutzen dugu? Edo Baxcnafarrera edo Lapurtera edo Goinafarraren zer ezagutzen dugu eta zer ulertzen dugu? Hori ere euskera da, ba. Gure telebistak, gure irratiek, gure egunkari eta aldizkariak ezer erakusten digute euskalki horiei buruz? Ala euskalkiak eztun eta uler-

tzea euskeraren kaltetan ote dijoa? Ala gauza arraro eta zahar batzuk bezela ote ditugu, noizbehinka erakusten den gauza bitxi bat bezela? Ba euskera batzeko eta Euskalherria ezagutzeko horiek ere ezagutu behar ditugu. Besteek behintzat heuren etxeah horrela egiten dute. Guk zergaitik ez? Ala ere bereziak ote gera?

Piemen dijoakizkizu euskera mintzatuaren grabaketa batzuen berriak. Beti bezela lehenengo grabaketak atzerrikoak dira eta Vienan daude.

1. Vienako grabaketa

Nola agertu ziran

P. Xarriton jaunak bilatu zuen Broussain jaunaren grabaketa bat: Vienako fonoteka batean: Fonogrammarchiv izena du.

Nik fonoteka horretan egoteko era izan nuen eta grabaketa horien berri eskatu nuenean, lehenengo grabaketen katalogoa utzi zidaten. Ikusi nuenean han agertu ziren ia euskalki guztietan egindako grabaketak. Uste nuen baino gauza gehiago azaldu ziren. Gero «protokolo» izeneko orriak ekarri zizkidaten traskribaketekin.

Denetara, 68 gramofono disko dira: 2 ordu eta 20 minutu, 1913ko udan, hemen jasoak.

Nork egin zituen

Austriatar batek egin zituen. Beraren izena Rudolf Trebisch. Ikasketaz fisikoa zen baina folklore eta etnografia zalea ere bai. Eta Fonogrammarchiv delako horren zuzendaria zen, grabaketa hauek egin zituenean. Fonoteka hori, munduan dagoenik zaharrena da eta beste aide, bazegon orduan, eta badago orain, bai hizkuntzei buruz eta bai dialektoei buruz zabaltasun joera bat. Horregatik Austrian bertan erabiltzen diren dialekto guztien grabaketak dituzte, eta kanpoko mintzaira eta dialektoenak ere bai.

Jaun horrek ba, Europako herri txiki batzuetako mintzai-

rak grabatu zituen eta hona ere etorri zen.

Ez dakit beraren tresnez batetik bestera ibili zen, ala herri baten jarri eta hara deitzen zituen beraren lekukoak. Uste dut bigarren joera hau erabili zuela. Dena dela, haren disko' eta tresnak hartu eta Vienara itzuli zen eta han beraien fonoteka horretan gorde zituen. Eta gaur arte han egon dira, gaur hori hitzez hitz hartuta, 1983. urtea izan delako, Julio de Urkijok egin zuen aipamen bat kenduta, ia inork ere ezagutzen ez duena.

Now *egin zituen grabaketak*

Herriak dauden ordenan jarriko ditut eta ez euskalkiz euskalki.

Sare, 2 grabaketa	Bildozen, 1
Hazparnen, 3	Santa Grazin, 2
Amorotzen, 1	Barkoxen, 2
Behauzen, 1	Atharratzen, 1 Musika
Bar dozen, 1	Ainhoan, 2
Donibane Garazi, 2	Lekeitio, 2 (bat R. M. ^a de Azkue-berarena)
Baigorri Garazi, 2	Markinan, 2
Maulen, 1	Mungian, 2
Bergaran, 2	Orbaiztan, 2
Azpeitian, 2	Ustarrozen, 1
Lizartzan, 1	2243 garrena Irunekoa da, baina jota bat.
Ataunen, 1	Elizondo, 2
Tolosan, 3	
Garinaden, 1	

Beraren asmoa ez zen linguistika lan bat egitea, etnografiako lan bat baizik. Beraren bizibidea «ethnographi» jartzen du.

Traskribatzaileak

Bost dira: Julio de Urquijo, G. Lacombe, Gabriel Roby, R. M. de Azkue eta Gregorio de Mujika.

Ez dira zehatzegiak, eta berrikusi beharra dago, baina la-

guntza ematen dute traskribaketa zorrotzagoak egiteko.

Nolako testoak daude

Testo libreak dira. Batek ipuin bat kontatzen du, beste batek abesti bat kantatu, beste batek bere bizitzako zerbait. Abestiaren artean «Agota» erromantzea osorik agertzen da eta Santa Agedaren eskari kanta bat ere bai.

2. Aleinaeiako grabaketak

Berlingo fonoteka baten ere bazeuden beste grabaketa batzuk, H. Urtel-ek jasoak.

Irakasle honek 1. munduko guduan preso harrapatutako ipar aldeko gudari euskaldunei grabaketak egin zizkien diskotant. Grabaketa horiek Berlinen zeuden, baina ez dakigu zer gertatu zen fonoteka horrekin 2. munduko guduan. Dena dela beste euskalari famatu baten disko horietako batzuk argitaratu zituen. Baina ez hemen, Alemanian baino. K. Bouda zuen izena eta 1930-1935 bitartean argitaratu zituen.

3. Beste oraletsuko grabaketa batzuk

Horri hauen egileak ere grabatu ditu bizkaieraren 25 herritan eta gipuzkeraren beste 25 herritan hainbat ordu. Elkarrizketa libreak izan ziran eta oinarrizko hiztegia eta gramatika bat egiteko erabili izan ditugu. Baina gure lana bukatzen dugunean, artxibatuta geldituko dira beste batzuk ere ikerketak egin ditzaten. Euskaltzaindian ere badaude kasete txiki batzuk herri desberdinetako grabaketekin. Berandu baina baten batzuk zerbait egiten hasi dira. Jaioko dira berriak Ian hobeagoak, zabalagoak eta zehatzagoak egingo dituztenak.

4. Euskaltzaindiaren Atlas Lingulstikoa

Atlas linguistiko honetan euskalkien fonetika, morfologia, lesikoa eta zenbait fenomeno morfosintatiko jasoko dira. Honelakoak izango dira atal bakoitzeko edukin nagusiak:

Fonetika

Eman ziran pausoak honela izan ziran. Lehenengo cuskalkietan gertatu diran zenbait fenomeno aztertu dira. Eta hortik aukeratu dira fenomeno batzuk.

Fenomeno batzuen izenak ere aztertu ziran. -a, -e, -i, -o, -u gehi mugatzaileak sortzen dituen aldaketak bokale armonia dira ala ez ote lirateke morfofonologiaren lege bat izango? Dena den fenomenoak jasota zegoen.

Fonetika arloa ala fonologia? Uste izan da egokiago zela fonetika, hortik gero fonologiarako ere datuak jaso eta erabili daitezkelako.

Alfabeto fonetikoak. Markinan, 1983ko irailean egin zen alfabeto baten zirriborro bat. Hori hartuko da oinarritzat baina hori bera ere aztertu behar da eta zehaztu. Azentoa ere jasoko da prestatuta dagon galdakizunean.

Galdera fonetiko honen helburua atlas linguistiko bat egitea da ez lan monografiko bat. Orduan atlasen tradizioa eta bideak jarraitu nahi ditu eta ez lan monografiko batenak.

Morfologia

Deklinabidea eta aditza sartuko dira arlo honetan. Deklinabidean galdeketa luzeegia ez egiteko eta gauza berezigarrienak aukeratzeko, kaso berezigarrien aukeraketa bat egin zen. Baina aholkularien iritziz, hobeto da kaso guztiak sartzea aukeratzeko diran herrietan. Bestaldetik bizidunak eta bizigabeak aukeratzeko dira. Bai bokalez eta bai kontsonantez amaituak. Eta hauen deklinabidea jasoko da mugagabeen eta mugatuen, eta hemen singularrean eta pluralrean.

Gainera sartuko dira izen bereziak bai pertsonenak eta bai lekukoak. Honelako galdeketa batek luzeeraren oinarrizko dauka. Baina behin egiten hasi ezker, hobeto osorik deklinabidea jasotzea. Eta horrela erabakita dago.

Galderak batez ere inoiz magnefotoarekin ibili ez direnean artean, eta despatxoan lana egiten dutenentzat, akats batzuk badiutuzte. Lekukoak herriko euskera baino nahiago du dotoreagoa egin. Baina arrisku hau biltzaleak berak desegin behar du meto-

do egokiak erabiliz, gaur herrietan hainbat eta hainbat lekukok uste duelako bere euskera exkaxa dela eta «jakitunen» euskera, hori bai ona dela.

Dena dela hau ez da lan monografiko bat izango eta atlasen tradizioajarrantuko du, bide hori nahiko gaitasun duten hainbestek eta hainbestek jarraitu dutelako. Orduan lekukoari emango zaio atlasetan duen garrantzia. Baina jakina denez, lekukoen aukera ez da bertan behera utziko ondo neurtu eta ondo pentsatu ondoren egin baino.

Aditzean informazio asko eman dezaketen formak aukeratu daude forma ezagunak aite batera utzi. Aditz sintetikoa batzuk ere jasoko dira bilketa honetan.

Sintaxia

Ez dira galdera asko baino linguistika aurreratue'neko ikuspegiak agertzen dira. Hori ere aberasgarri izango delakoan gaudede, oso fenomeno berezi batzuk diralako gaur gramatika sortzailearen bidetik aztertu nahi diranak euskalkien barruan.

Lexikoa

Euskal gizarteari lotuta dauden gaiak aukeratu dira hemen ere.

Denera 30 gai, hasi abere eta landare izenekin, klima eta eguraldiarenak, etxea eta familiaren ingurukoak, eta gizarte bizitza, pisu, neurri, diruen izenak eta koloreekin bukatzeko. Denera lau mila hitz, gutxi gora behera, baina hori larregi da 2.500 laburtuta gelditu da.

Bestaldetik lesiko arrunta eta abereen edo zuhaitzen izenak jaso behar dira, baina horiekin batera, errementarien lesiko berezia, edo arrantzaleena edo beste lanbide batzuenak.

Bestalde euskal lesikoa erabiltzen duten industri batzuetako formak jaso behar dira. Orduan galdeketa orokor batekin batera beste galdeketa berezi behar da. Eta hauen zati handi batzuk marrazki eta argazkiak erabiliz.

Azpiegitura

Azpiegitura ere aipatu behar da, 8-10 urteko lana martxan

jartzeko ezin daiteke arto-beroak bezela ibili. Pertsonak behar dira lan honi egiteko jo eta ke. Dena den, hemen lan egingo dutenak beste lan batzuetan baino zihurtasun gutxiago izango dute. Dirua ez ezik idealismo pixkat ere behar da honelako lanetan sartzeko. Tresnak behar dira eta ez nolana hikoak eta tokia behar da material guztiak batu eta lantzeko. Eta gerorako artxibatzeko. Eta kanpoko liburu eta aholkuak ere behar dira.

Hauekin denekin, hamar urte barru atlas horren tomo gehienak bukatuta baleude hor egongo litzateke euskalkien eta euskeraren gauza asko eta asko ezagutzeko harrobi bat. Eta horrela ia beteta gelditzen den Euskalherriko eta atzerriko euskalari askoren gogo bero hori: Euskerak izan dezala bere atlas linguistikoa.

J. M. Etxebarria

BANCO IDE BILBAO

100 urte baino gelago bezeruen zerbltzuan

ESPAINA'KO BANKO BAKARRA
ERBESTEAN ETXE-ORDEZKOAKIN

Ofizina: Karmen kalcan, 7 - AMOREBIETA (Bizkaia)